

LEZO / Bihar ipuin kontaketa izango da liburutegian

Lupe Lekuona kontalariak 'Untxitxo Txuria' ipuin bilduma kontatuko die gaztetxoenei

L. Muguruza

Andreone Udal Liburutegian Udalarekin batera haurren artean literatura zaletasuna bultzatzeko ekimenen baitan, bihar, ipuin kontalari saioa izango da. Lupe Lekuona hondarribiarraren txanda izango da bihar eta 18:15ean Untxitxo txuria ipuin bilduma eskainiko du. Aipatutako saioa lau eta sei urte arteko haurrentzako pentsatua dago.

Lekuonak bizitza erdia andereño gisa egin du lan, baina orain ipuin kontalari lanetan ari da, umeen mundua utzi gabe ipuinak kontatzen jarraitzeko eta haiekin disfrutatzeko. Ipuinen bitartez, irudimenezko haurren mundura sartzen naiz. Han ipotxak, sorginak, printzeak, erraldoiak eta abar bizi dira. Nirekin etorri nahi baduzu, aurrera!.

Hondarribitarrak bi taldetan banatu ohi ditu ipuin emanaldiak: hiru eta sei urte arteko gazteentzako ordu erdiko saioa egiten du; zazpi eta hamar urte artekoentzako, berriz, hiru ordu laurdenekoa.

Era berean, Lupe Lekuonak onartzen du ez dela eszenatoki eta mikrofono zalea, haurren gertutasuna baloratzen baitu gehien. Saioan mahai txiki bat eta aulki bat erabili ohi ditu soilik.